839/2018 EBAZPENA, AZAROAREN 30EKOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, PAZIENTEEN OSASUNA NEURTZEKO ERABILTZEN DIREN GALDETEGIAK EUSKARARA EGOKITU ETA BALIDATZEKO PROIEKTUAK DIRUZ LAGUNTZEKO PROZEDURA ZEHAZTEN DUENA.

Arlo sanitarioan gero eta ohikoagoa da osasunari buruz pazienteek duten pertzepzioa neurtzeko tresnen erabilera (Patient Reported Outcomes, PROM), eta baita ere pazienteen gogobetetzea, itxaropenak eta esperientziak jasotzeko direnena (Patient Reported Experiences, PREM).

Osasunarekin zerikusia duten gaiak pazienteen ikuspuntutik neurtzeko tresna hauek gero eta eskuragarriagoak dira gaztelaniaz, baina euskaraz urriak dira. Laborategiko edo neurketarako edozein tresna bezala, erabilera kalitate-arau batzuen menpe dago, balioa eta fidagarritasuna bermatze aldera. Beraz, galdetegiak euskarara egokitu eta balidatzeko, beharrezkoa da lan metodologiko eraginkorra egitea, egokitzapen horren bideragarritasuna ziurtatzeko.

Etorkizunari begira, tresna hauek Osakidetzaren informazio-sistemetan txertatzeko sistemak antolatu behar dira, eta bermatu behar da txertatzen diren euskarazko galdetegiek exijitutako kalitate-estandarrak betetzen dituztela.

Osakidetzaren arautegiak, bestalde, historia kliniko elebiduna izatearen garrantzia aintzat hartzen du. Batetik, Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planak bigarren kapituluan ezartzen ditu idatzizko komunikazioetarako bi hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideak. Dokumentazio klinikoa aipatzen da espresuki, eta esaten da helburua historia kliniko elebiduna izatea dela, beraz, galdetegiak euskarara egokitu eta balidatzeak aparteko garrantzia hartzen du.

Halaber, Osakidetzaren Erronkak eta Proiektu Estrategikoak 2017-2020 dokumentuan jasotzen da pertsonak aukeratu duen hizkuntzan arreta emateak asistentziaren kalitatea handiagotzen duela, eta bide horretan ezartzen den ekintza da euskara gero eta presenteago egitea dokumentazio klinikoan eta historia klinikoan. Aurrerago, eremu asistentzialen, beste erakunde batzuen eta gizarte eragileen artean, informazio klinikoko sistema elebidunen integrazioaren ezarpena eta kontsolidazioa osatzea helburu, berriz azpimarratzen da historia kliniko bakar eta elebidun bateranzko bidea hartu behar dela.

Aipatutakotik ondorioztatzen da galdetegiak euskarara egokitu eta balidatzea erabat justifikatuta dagoela, eta Osakidetzaren bultzada eta babesa merezi duela. Hori dela eta, Zuzendaritza honek, bere zereginen artean hizkuntza arloan jarduketa-irizpide nagusiak ezartzea duena, diru-laguntza lerroa sortzea erabaki du, Osakidetzako prozesu asistentzialetan balidatutako euskarazko galdetegiak txertatzeko proiektuak aurkeztea errazteko helburuz.

Ondorioz, osasuna neurtzeko galdetegiak euskarara egokitu eta balidatzeko proiektuak finantzatzeko prozedura arautuko duten oinarriak eta baldintzak ezartzea beharrezkoa da. Beraz, hona hemen xede horretarako eman den

C/. Alava, 45 - 01006 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 006 150 - Fax 945 006 204

EBAZPENA

Lehena.- DEIALDIAREN XEDEA

Ebazpen honen helburua da galdetegiak (PROM zein PREM) euskarara egokitzeko eta balidatzeko proiektuak 2019an diruz laguntzeko prozedura zehaztea.

Bigarrena.- DIRU-LAGUNTZEN ESPARRUA

Diru-laguntza eska dezakete aipatutako galdetegiak euskarara egokitzeko eta balidatzeko proiektua aurkezten duten Osakidetzako unitate, talde edota zerbitzu-erakundeek, ebazpen honetan zehazten diren baldintzei jarraituta.

Hirugarrena.- DIRU-HORNIDURA

Ebazpen honetan zehazten diren lanetara bideratuko diren diru-baliabideak 50.000€ dira.

Aurrekontu-baliabideei erreparatuta, Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak proiektua osorik finantzatu ahal izango du, edo zatika (jasotako eskaera kopuruari erreparatuta), edo ezeztatu ahal izango du eskaera.

Eskaera bat baino gehiago jasoz gero, diru-laguntzetarako ezarri den diru-kopuru osoa proportzionalki banatuko da zerbitzu-erakundeen artean, hornidura agortu arte, bosgarren oinarrian ezarritako irizpideei adituta.

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein eratako diru-laguntzekin.

Laugarrena.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA, FORMALIZAZIOA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1- Zerbitzu-erakundeek galdetegiak euskarara egokitu eta balidatzeko proiektuak diruz laguntzeko eskabidea eredu normalizatuan aurkeztuko dute (I. eranskina), behar bezala beteta eta zerbitzu-erakundeko zuzendaritzak sinatuta. Eskaera eta dagokion dokumentazioa Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko ditu.

4.2- Eskabideak eta dagokion dokumentazioa aurkezteko epea hasiko da ebazpen hau zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan jakinarazi eta Osakidetzako intranet korporatiboan argitaratu eta hurrengo egunean, eta hurrengo hilabeteko egun baliokidean amaituko da. Hurrengo hilabetean ez balego egun baliokiderik, epea hurrengo egunean amaitzen dela ulertuko da.

4.3- Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Proiektuaren nondik norakoak azaltzen dituen memoria.
- Aurrekontu zehatza.

Bosgarrena.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK ETA BAREMOA

Aurkezten diren eskabideak baloratu egingo dira, eta 10 puntu jaso ahal izango dute gehienez, honako baremoari erreparatuta:

5.1- Memoria bat aurkeztu beharko da proiektua osotasunean azalduz; egokituko diren galdetegien berri eman beharko da bertan (2 puntu).

5.2- Baloratuko da aukeratutako galdetegiak praktika asistentzialean eta ikerketan sarri erabiltzea, eta berariaz atal kognitiboari eta hizkuntzari eragitea (2 puntu).

5.3- Aukeratutako galdetegiek Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II Planeko 5. kapituluan ezarritakoa aintzat hartu beharko dute (2 puntu).

5.4- Aurkeztutako proiektuak bat egin beharko du Osakidetzaren Erronka eta Proiektu Estrategikoak 2017-2020 dokumentuarekin (1,5 puntu).

5.5- Euskarara egokitzeko aukeratutako galdetegien izaera korporatiboa baloratuko da (1,5 puntu).

5.6- Kontuan izango da kontratu-programan ebaluatzen diren arloetako galdetegiak izatea (puntu 1).

Seigarrena.- DIRU-LAGUNTZEN ESLEIPENA

Ebazpen honek arautzen dituen diru-laguntzen esleipena Giza Baliabideetako Zuzendariaren ebazpen bidez egingo da, behin Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak jasotako eskabide guztiak aztertu ondoren. Ebazpen horrek jasoko ditu diruz lagunduko diren unitate, talde edo zerbitzu erakundeen zerrenda, eta bakoitzari emango zaion diru kopurua, hala badagokio. Halaber, ebazpenak onartu ez diren eskabideen zerrenda jasoko du, ez onartzearen arrazoia zehaztuz.

Jakinarazpena ebazpen hori intranet korporatiboan argitaratuz egingo da.

Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak beretzat gordeko du proposamenetan aldaketak proposatu edo, kasua bada, sartzeko aukera, eskatutako jarduerarako diru-laguntza eman aurretik.

Zazpigarrena.- DIRU-LAGUNTZAK ZURITZEA ETA ORDAINTZEA. ZERBITZU-ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK

Diru-laguntzen ordainketa aukeratutako galdetegiak euskarara egokitu eta balidatzeko prozesutik eratorritako beharren arabera egingo da, eta adostu egingo da diru-laguntzaren esleipendunaren eta Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboaren artean.

Proiektua prestatu duen unitate, talde edo zerbitzu-erakundeak, proiektua bukatzen duenean, prozesua osotasunean jasotzen duen artikulua idazteko aukera aztertuko du, argitalpen espezializatu batera bidaltzeko.

Ebazpen hau Osakidetzako intranet korporatiboan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroak 30

Osakidetza
Juan Carlos Soto Pérez
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Juan Carlos Soto Pérez
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

Osakidetza

I. ERANSKINA	ANEXO I
PAZIENTEEN OSASUNA NEURTZEKO ERABILTZEN DIREN GALDETEGIAK EUSKARARA EGOKITU ETA BALIDATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA	SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA PARA LA ADECUACIÓN AL EUSKERA Y VALIDACIÓN DE CUESTIONARIOS DESTINADOS A MEDIR LA SALUD DE PACIENTES
(839/2018 ebazpena, azaroaren 30ekoa)	(Resolución 839/2018, de 30 de noviembre)

Zerbitzu Erakundea Organización de Servicios	
Unitatea, Taldea, Zerbitzua... Unidad, Equipo, Servicio...	
Harremanetarako pertsona (izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa) Persona de contacto (nombre y apellidos, nº de teléfono y dirección electrónica)	
Proiektuaren izenburua Título del proyecto	
Aurrekontua Presupuesto	

Data/ Fecha

Iz. / Fdo.**: Zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaria**
Director/a de personal de la organización de servicios